



[AD HOC] 049

“Ad Hoc” bere espazioa euskal sortzaileei eskaintzen dien atala da. Bertan, hileroko lehenengo larunbatean, espreski MUGALARI-
rentzat egindako edo aukeratutako lan bat aurkezten du artista batek.

UNAI REQUEJO

(SANTURTZI, 1982)
DENBORA-PASA ABSTRAKTUA (2008)

Unai Requejok lan anitza du, forma asko hartzen dituena. Hala eta guztiz ere, badira proiektu guztietan zehar mugitzen diren ildo batzuk. Horieta-ko lehenengoa umorearena da. Hau ez da zuzena edo azalekoa, baizik eta sotila eta argia, irudime-
nez betetakoa.

Oinarritzkoa den beste elementu bat bere erru-
gabetasun kalkulatu da. Requejoren lana jolasa-

ren inguruan antolatzen da maiz, ikusleei parte hartzeko aukera luzatuz. Lanek ez dute mezu ez-
kukurik, ez esanahi hermetikorik; hala eta guztiz
ere, jolas erraz bat izatetik aldentzen dira. Arte
eta musikaren munduari lotutako erreferentziaz
beterik daude bere proposamenak, testuinguru
bat marraztu eta honen barnean leku bat kokatu
nahi duten erreferentziak.

Unai Requejok 2005ean bukatu zuen Arte Ede-
rretako lizentzia EHU-n.

Bere kabuz lan egiteaz gainera, Jorge Nuñez-
ekin Adrede y Aposta kolektiboa sortu du eta
Trois Petits Marchants taldeko kidea izan da. Era-
kusketa anitzetan parte hartu du, Euskal Herriko
hainbat lekutan nahiz Madril, Bristol eta Breda
bezalako hirietan ere.

www.unairequejo.com

Haizea BARCENILLA